

8. Funtsezko jarduerak

Panel fotovoltaikoak guk geuk ezin ditugu ekoiztu, beraz, beste enpresa bati erosiko diegu, Solar Pack-ari, hain zuzen.

Orduan, gure funtsezko jardueretako bat, panel fotovoltaikoak lortzea izango da. Hau da, Solar Pack-ekin harremanetan jartzea eta panelen kosteak etabar negoziatzea.

Beste jarduera garrantzitsu bat, panelen garraioa eta instalakuntza izango da. Guk geuk izango gara panelen instalakuntza eta garraioaren arduradunak. Hau da, guk eramango ditugu panelak behar den lekura eta bertan instalatuko ditugu.

Azkenengo jarduera, benetan gure enpresa funtzionatzeko lehenengoa izan behar dela, nolabaiteko publizitatea egitea da. Hau da, gure proiektua nahiko berritzailea da, beraz, gure enpresa ezagutaraztea eta bezeroak erakartzea izango da. Horretarako, iragarkiak jarriko ditugu egunkarietan. Horrez aparte, Facebook bat sortuko dugu, jende gehiago erakartzeko. Bertan, esteka bat egongo da eta gure web orrialde ofizialera eramango du.